

Gerrako Emakume Bakartien Liga



Ezkerrean, Barbara Lauwers Podoski –jaiotzez Božena Hauserova–, Gerrako Emakume Bakartien Ligaren sortzailea. Eskuinean, soldadu alemaniarrei zuzendutako esku-orria.

WASHINGTON (AEB), 1943KO EKAINAREN 1A. Barbara Lauwers Podoski Women's Army Corps AEBetako armadako emakume taldean sartu zen. Božena Hauserova –hori zuen benetako izena– 1914an jaio zen Brnon, egungo Txekiar Errepublikan. Parisko Unibertsitatean ikasi zuen eta zuzenbide gradua lortu zuen. 1938an, alemaniarren okupaziotik ihesi, lehenik Afrikara eta gero AEBetara joan zen. Armadako arduradunek berehala MO (Morals Operations edo Operazio Moralak) taldeko kide izateko aukeratu zuten, hainbat hizkuntza zekizkielako: txekiera, alemana, frantsesa, ingelesa... Zegokion prestakuntza jasota, 1944. urtearen hasieran Italiara bidali zuten, etsaien lerroetan sartuta agente gisa lan egin zezan.

Soldadu alemaniarren moralak hondatzea zen haren egitekoa eta horretarako, besteak beste, Gerrako Emakume Bakartien Liga (Verein Einsamer Kriegerfrauen) irudizkoa sortu zuen, soldaduen bihotzari edota hankarteari zuzenean erasoko zien arma.

Testu hau alemanez idatzi zuen eta milaka kopia zabaldu zituen alemaniarrek ibili ohi ziren tokietan:

“Fronteko soldadu maitea. Badakigu ausartenak ere nekutzen direla, eta atsedendaldia, burko leun bat, samurtasun pixka bat behar dutela. [...] Zure zain gaude: ebaki gutun honetako sinbologia eta eraman soinean edo itsatsi

tabernetan, kafetegietan, tren geltokietan, garbi ikusteko moduan. VEKeko kide bat zuekin harremanetan jarriko da. Gau bakartietan dituzun ametsak eta fantasiak beteko dira. Zu nahi zaitugu, ez zure dirua. Beraz, zuregana hurbiltzen den edonori txartela erakutsi behar diozu. Kideak edonon daude, emakumeontzat aberriarekiko betebeharra baita. Baina ez da betebeharrak hutsa. Urte luzez gizonengandik bananduta egon gara, atzerriartzez inguratuta, eta berriro soldadu alemaniarren gaztetasuna sentitu nahi dugu gure baitan. Ez zaitez lotsatia izan. Zure emaztea, zure arreba edo zure maitalea ere gurekin daude”.

Gezurrezko elkarte hain eraginikorra izan zen, aliatuek ere sinetsi baitzuten. *Washington Post*ek zera argitaratu zuen 1944ko urriaren 10ean: “Baimena dute Italiako fronteko soldadu alemaniarrek, papar hegalean bihotz bat jarri besterik ez dute neskalaguna topatzeko”. Barbarak, orduan, txekierara eta eslovakierara itzuli zuen testua, alemaniarrekin ari ziren soldaduak biguntzeko; ondorengo hilabeteetan desertatu zuten txekoslovakiarretatik 600 inguruk esku-orria zeramaten patrikan.

Gerran eta maitasunean dena zilegi dela esaten da. Sekula existitu ez zen Gerrako Emakume Bakartien Ligak biak nahastu zituen, lehenaren mesedetan eta bigarrenaren kaltetan. ■

Arrastoak

Arrauna esklaboen lana al zen antzinako Erroman?

K.A. 40. URTE INGURUAN Oktavio –gerora Zesar Augusto enperadorea izango zenak– Sexto Ponpeio zuen etsai nagusia, eta hura itsasoa menderatzeko itsasontzi azkarragoak behar zituen; ohiko eskifaiez gain, esklaboak hartu behar izan zituen arraunean egiteko. Baina hori salbuespena zen antzinako Erroman. Gehiengotan tropa osagarrietako kideek jarduten zuten arraunean. Libreak izan arren, ez ziren Erromako hiritarrak eta hiritartasuna lortzeko 26 urteko zerbitzu gogorra eman behar zuten. Hala ere, ez ziren esklaboak.

1959ko *Ben-Hur* filman, Juda Ben-Hur protagonista Kinto Arrio kontsularen galeretan esklabo gisa arraunean ikusten da, jipoituta eta akitura, esklabotzara eraman duen Messala lagun ohiaren aurkako mendekuarekin ametsetan. Eszena ezagun hori nahikoa izan zen historikoki okerra den ustea zabaltzeko eta egiaztatutzeko. ■



MGM

“Ben-Hur” filmak adierazitakoaren aurka, ontzi erromatarretako arraunlari gehienak ez ziren esklaboak.